

Ondare historikoa berpiztuz

Bi astean behin, arlo ugaritako auzolan esperientziak ekarriko ditugu ARGIAko orrialdetara, Martin Vicioso eta Lide Hernando kazetarien eskutik. Burdina taldearekin abiatu dugu saila;

Andoaingo eta Leitzarango bailarako ondare historikoa auzolanean berreskuratzeaz arduratzen den taldea. Besteak beste, sastraka eta zuhaitz artean ezkutuan ziren burdinolak, karobiak eta harraskak berriztatu dituzte.

| MARTIN VICIOSO |

DUELA HAMAR URTE elkartu ziren lehen aldiz Burdina taldeko kideak. Leitzarango bailaran, Andoain eta Elduaen artean ostendutako ondare baliotsua dagoela konturatu ziren. Inguruko artzain eta baserritarren laguntzarekin garai bateko karobi, aska eta bestelakoak kokatu eta berreskuratze lanak hasi zituzten. Egun, 80 lagun baino gehiago dira taldean.

Burdinako bultzatzaileetako bat izan den Xabier Arrutik hiru fase bereizi ditu euren lanean. Lehenik eta behin, landa-lana egiten dute: mendira joaten dira berreskuratu beharreko gune gehiagoren bila. Horretarako, inguruan bizi eta lan egiten duten pertsonengana jotzen dute, sastraka artean ezkutatutako harriak non dauden jakiteko. Ondoren, eremua garbitzen dute, karobi eta aska gehienak ehun urte baino gehiagor gordean egon baitira. Hau da, sakon induskatu behar da haietara iristeko. Bertan dagoena agerian utzita, egoera aztertzearen beharra azpimarratu du Arrutik. Horren arabera, egingo den berreskuratze lana zehazten da. Batzuetan herritarren auzolana ez da nahikoa izaten eta arotzak berreraiki behar izaten du. Kasu horietan, dirulaguntzak adostu behar izaten dituzte.

Lan handia dute egiteko. Izan ere, ingurua oso aberatsa zen burdingintzarako, baliabide naturalak direla eta (harria eta erreka ura). Hala ere, ez dira maiztasun finkoarekin aritzen. Lanaren arabera data zehazten dute, eta ahal dutenak azaltzen dira. Gutxienez hamar hamabost pertsona aritzen dira auzolanean. Adin eta lanbide askotako herritarrek parte hartzen dute, gehienak andoaindarrak, baina baita inguruko herritakoak ere. Ahoz ahoko estrategiari eta herrian egiten dituzten batzarrei esker lortu dute taldea zabaltzea. Dena



den, nabarmendu dute oraindik ere askori kosta egiten zaiola halako ekimenean parte hartzea.

Finantzazioa beharrezko

Taldea ekonomikoki baldintzatuta dago. Andoaingo Udalaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren diru-laguntzei esker ordaintzen dituzte tresneria, autoen mantenua, arotz lana eta kideen lan-aseguruak. Beste herri batzuetan ere lan egiteko eskatu diete, baina kostuei aurre egin ahal izateko bertako erakundeen laguntza beharko lukete. Horregatik, gehienbat Andoainen eta Leitzarango

bailaran aritu dira orain arte.

Burdina taldekoek argi dute ondare historikoa mantentzearen garrantzia. Arbasoen ohiturak eta bizimoduak ulertzen laguntzen du. Arrutik adibide argigarria jarri du: berreskuratzen dituzten karobi, harraska eta burdinola asko modu berean eraiki ziren, auzolanean. Historiak irakasten du elkarlanari esker eguneroko beharrak ase daitezkeela, eta gaur egun ere balio horiek berreskuratzea posible dela. ■

